



# GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO HAUSNARKETAK

## Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren balioa: Errusia hitzarmenetik irtetearen inguruko hausnarketa

**2022ko iraila**



**[www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)  
[international@ararteko.eus](mailto:international@ararteko.eus)**

## Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren balioa: Errusia hitzarmenetik irtetearen inguruko hausnarketa

*Artikulu honetan, Arartekoak gogoeta egiten du Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak gizarte ireki eta demokratikoetarako duen balio kalkulazinari buruz. Hitzarmena aplikatzen duen Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren erabakiek mundu guztia asebetetzen ez badute ere, Europan giza eskubideak babesteko etengabe aurrera doan ibilbidea egin dugu horri esker. Errusia hitzarmenetik irteteak gogoeta egiteko aukera ematen digu, eta aukera tristea baina paregabea da giza eskubideak babesteko nazioarteko erakundeekin dugun konpromisoa indartzeko.*

### Zer dira Giza Eskubideen Europako Hitzarmena eta Auzitegia?

[Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak](#) 13 eskubide zibil eta politiko jasotzen ditu (hala nola bizitzeko eskubidea, tortura-debekua, epaiketa bidezkoa izateko eskubidea, erlijio- eta adierazpen-askatasuna). Gainera, beste eskubide batzuk eransten dituzten [Protokoloak](#) ditu. Eragin handieneko ituna da; izan ere, eskubideak aitortzeaz gain, urraketa salatzeko auzitegia sortzen du. Errusiaren irteeraren ondoren, Europako Hitzarmena baliozkoa da Europako 46 herrialdetan, Europako Kontseilua osatzen duten herrialdeetan, hain zuzen ere. 1950ean egin zen, eta, harrezkero, behin baino gehiagotan aldatu da. Espainian, 1977tik dago indarrean.

[Giza Eskubideen Europako Auzitegiak](#) pertsonen demandak jaso ditzake, hain zuzen, haiek bizi diren estatuak Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko edo haren protokoloetako eskubide bat urratu duela uste duten pertsonenak. Demanda jarri ahal izateko, beharrezkoa da auzitara eraman nahi den herrialdeak dagokion hitzarmena edo protokoloa berretsi izana. Demanda jartzen duen pertsonak salatzen duen urraketaren biktima izan behar du, eta, gainera, Europako Auzitegira jo aurretik, barneko errekurtsio judizialak agortu behar ditu; hau da, urraketa estatuko instantzia judizial guztietan salatu behar du. Horrek esan nahi du, oro har, Konstituzio Auzitegiraino jotzea. Azkeneko ebazpen judiziala jakinarazten denetik, lau hilabeteko epean jarri behar da demanda. Prozesuan, auzitegiak demandatuari eta estatuari entzuten die. Demanda onargarria bada, epaia emango du hitzarmeneko eskubideren bat urratu den ala ez adierazteko, eta, hala badagokio, urraketaren biktimari konpentsazio ekonomikoa emango dio eta urraketa konpontzeko edo etorkizuneko urraketak prebenitzeko beste modu batzuk adieraziko ditu. Giza Eskubideen Europako Auzitegia Estrasburgon dago, eta 46 epailek osatzen dute, herrialde bakoitzeko batek; bederatzi urterako izendatzen dituzte horiek.

## Zer galtzen dute errusiarrek Errusia hitzarmenetik ateratzean?

Errusiak 1998an egin zuen bat Giza Eskubideen Europako Hitzarmenarekin, eta, hala, Errusian bizi diren pertsonak auzitegian herrialdearen aurkako demandak jarri ahal izatea onartu zuen. Errusiarrek asko erabili dute auzitegira jotzeko aukera. 1998 eta 2021 artean, [191.000 demanda baino gehiago aurkeztu ziren Errusiaren aurka](#). Demanda horietako gehienak onartezinak izan ziren, eta ez ziren sakonean aztertu; hala ere, kopuruak ondo erakusten duenez, auzitegiak itxaropena pizten zieten errusiarrei. Auzitegiak 3.116 epai eman ditu Errusiaren aurka. Hitzarmena osatzen duten 46 estatuen artean, epai gehien izan dituen bigarrena izan da. Horietako 2.943tan adierazi zenez, gutxienez hitzarmeneko eskubideetako bat urratu zuten. Ia 1.300en arabera, legez kanpo atxilotua ez izateko edo askatasuna ez galarazteko eskubidea urratu zuten. Beste 992 tratu gizagabe edo iraingarriari buruzkoak izan ziren, eta 349k bizitzeko eskubidea urratu zutela adierazi zuten. Errusiako populazioarekin alderatuta, 145 milioi pertsona inguru, pentsa liteke demanda gutxi direla. Hala ere, zenbakiak erakusten dute herrialdeak ez diela konponbiderik jarri auzitegiak epailetan adierazitako arazoei, arazo berberak behin eta berriz errepikatzen direlako, Errusiak arazo horiek konpontzeko aukera nahikoak izan dituen arren.

Zenbakien atzean, giza eskubideen urraketak jasan dituzten eta Errusiako Estatuaren jardunak eragindako sufrimendu handiak jasan dituzten pertsonen edo pertsona-taldeen istorioak daude. Kasu ugari landu dituzte 90eko hamarkadaren amaieran eta 2000ko hamarkadaren hasieran [Txetxenian](#) egindako operazio militarrek, non pertsona asko desagertu eta hil, eta beste asko zauritu ziren indarkeriaren ondorioz. [Aleksey Navalnyy](#) edo [Natalia Estemirova](#) aurkari eta aktibista ezagunen demandak ere egon dira. Demanda horietan, bataren heriotzaren inguruabarrak argitzea edo bestea aske uztea lortu nahi zen. Errusiako Estatuak bereziki gaizki tratatzen dituen gutxiengo batzuk Giza Eskubideen Europako Auzitegian lasaitasuna lortzen saiatu dira. [Bayev Errusiaren aurka](#) kasua gay propagandaren aurkako legeari buruzkoa zen. Lege horrek homosexualitateaz edo transexualitateaz jendaurrean hitz egiteko aukera irmoki murrizten du. [Alekseyev](#)en kasua Moskun LGBT harrotasunaren adierazpenak debekatzearekin zegoen lotuta.

Baina guretzat ezagunagoak diren eta guregandik gertu bizi izan ditugun giza eskubideen urraketak ere jasan dituzte errusiarrek. Epai ugari daude Errusiak genero-indarkeriaren biktimei ematen dien babes eskasaren inguruan. [Tunikovaren](#) kasua hainbat emakumeren demanda izan zen; beren bikotekideen aldetik muturreko indarkeria jasan zuten, mutilazio bat barne. Kasu horretan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak ondorioztatu zuen Errusiako Estatuak gabezia estrukturalak eta orokorrak dituela genero-indarkeria prebenitzeko eta zigortzeko orduan, baita biktimak babesteko eta haiei kalte-ordainak emateko orduan ere. Auzitegiaren arabera, Errusian emakumeen aurkako diskriminazio-joera dago, genero-indarkeriaren aurkako borrokari dagokionez. Era berean, auzitegiak adierazi zuenez, gabezia horiek genero-indarkeriaren aldeko giroa sortu dute Errusian, eta indarkeria hori oso handia izatera heldu da herrialdean. Hitzarmenetik irten ondoren, ezin izango da egoera horiek Giza Eskubideen Europako Auzitegian salatu, ez eta besterik ere. Errusiarrentzat galera handia da, errusiar epailetza ere neurri handi batean kontrol politikoaren menpe dagoelako eta bere independentziaren zati handi bat galdu duelako. Europako Auzitegia, aldiz, independentea zen.

Jakina, giza eskubideak babesteko ez da nahikoa Europako Auzitegiak urraketak deklaratzeko. Estatuak ere bete egin behar ditu. Urraketak ikertu behar dira, biktimei kalte-ordainak eman behar zaizkie, eta lege- eta administrazio-aldaketak egin behar dira, urraketak berriz gerta ez daitezen. Errusia ikasle txarra izan da zentzu horretan. Egia da [aurrerapenak](#) egon direla auzitegiak emandako epaiei esker —adibidez, behin-behineko espetxealdiari dagokionez—, baina, zoritxarrez, [lan asko](#) dago egiteko oraindik. Izan ere, epai batzuen betearazpena auzi politiko bihurtu da, eta Errusiako agintariek, besterik gabe, ez dituzte bete nahi izan.

## **Dilema: Hobe barruan edo hobe kanpoan?**

Europako Kontseiluak —haren mende dago Giza Eskubideen Europako Auzitegia— jarrera inklusiboa izan du beti. Estatuetakoz batzuei, esaterako, Errusiari, demokrazia deituz ez dagoen arren eta giza eskubideak errespetatzen ez dituzten arren, erakundeak nahiago zuen beti barruan mantendu. Horrela, herrialde horien gaineko nazioarteko presioari eustea, herritarrek ahal zen neurrian babestea eta gizarte zibilari laguntza ematea zen helburua. Dena den, Ukrainaren aurkako eraso militarren ondorioz (Europako Kontseiluko eta Auzitegiko beste estatu kide bat), defendaezina zen Errusiak barruan jarraitzea. Hala ere, beste erabakirik hartu ezin bazen ere, beste estatuentzat Errusia kanporatzeak zekarren dilemaz jabetu beharra dago, kanporatzeak Errusiako herritarrei Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren babesa kentzea zekarrelako. Nahiz eta Errusia oso fidagaitz izan epaiak betearazteko, horien bidez azterketa bat egiten zen eta salaketa publikoa egitea ahalbidetzen zuten Errusian giza eskubideen urraketari dagokionez. Auzitegirik gabe, haietako asko ere ez genituzkeen ezagutuko, Errusiako Estatuak ezkutatu egingo zituzkeelako. Ez nazioarteko lankidetzak, ez gizarte zibilak, ezin izango zuten Errusian zerbait aldatzen saiatu laguntza hori gabe. Europako Kontseiluko estatuen azken erabakia Errusia 2022ko martxoaren 16an kanporatzea izan zen; hala ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren irteera irailaren 16ra arte atzeratu zen. Horrela, bermatu egin da errusiarrek eta ukrainarrek demandak jarri ahal izatea gerrak eta haren ondorioek eragindako eskubide-urraketengatik. Adibidez, Errusiaren kontrolpeko lurralde ukrainarretan gertatutako sarraskiak, edo “gerra” hitza erabili duten pertsona, ekintzaile eta komunikabide errusiarren errepresioa Ukrainaren aurkako eraso militarri erreferentzia egiteko. Horri esker, gutxienez, gerraren testuinguruan gertatu diren urraketak ezagutu eta judizialki frogatuta izango ditugu. [Irailaren 16aren ondoren](#), auzitegiak data horren aurretik gertatutakoengatik jarritako demandak izapidetzen jarraituko du, eta Europako Kontseiluak horien betearazpena ikuskatzen jarraituko du. Hala ere, ezin izango da demanda berririk jarri geroagoko egitateengatik. Orduan, Errusia Giza Eskubideen Europako Hitzarmenetik ateratzearen ondorioak zein diren egiaztatu ahal izango dugu, bai errusiarren bizitzari dagokionez, bai Errusiak nazioartean duen jokabide politikoari dagokionez. Oraindik [17.000 demanda baino gehiago](#) daude ebatzi gabe auzitegian, eta Errusiak 2.100 ebazpen baino gehiago ditu betearazteke.

Hausnarketa honetatik kanpo geratzen bada ere, garrantzitsua da gogoraraztea Nazioarteko Zigor Auzitegiko fiskaltza Ukrainan gertatutako gertaerak ikertzen ari dela, nazioarteko krimenak izan daitezkeen ala ez erabakitzeko, baina bide hori oso zaila izango da, Errusiak ez baitu Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Estatutua berretsi.

## Hausnarketak

Errusiak Ukrainaren aurka egindako eraso militarra shock bat izan da Europako Giza Eskubideen Hitzarmenak ordezkatzan dituen balioen komunitatearentzat. Errusia hitzarmenetik irtetea erasoaren ondorioetako bat izan da, eta, jakina, horren aurretik daude galdu ditugun biziak, familia bananduak edo suntsitu dituzten azpiegiturak, hala nola ospitaleak eta eskolak. Baina arreta funtsezkoa denean jartzeko aukera ematen digu. Kontua inoiz baino argiago dago orain: Noren aldean egon nahi dugu: auzitegiaren aldean edo Errusiaren aldean? Orain badakigu zer-nolako estatuek ez duten nahi jarri Giza Eskubideen Europako Auzitegia eta antzeko erakundeen zaintzapean. Seinaleak ere hobeto identifikatu ahal izango ditugu: estatu batek auzitegiaren epaiak betearazteari uko egiten badio, alarmak piztu behar ditugu, eta nazioartean erabakitasunez jokatu jarrera alda dezan. Baina, batez ere, autokritikoak izan behar dugu sinesgarriak izateko. Errusia ez da auzitegiarekin kontuak egiteke dituen estatu bakarra, ezta hitzarmeneko eskubideak urratzen dituen bakarra ere, noski. Ezein herrialde ez da inoiz perfektua izango arlo horretan, eta, horregatik, beti izango da beharrezkoa auzitegia. Baina, sinesgarria izateko, auzitegia serio hartu behar da, eta benetan saiatu behar da epaietan esaten duena betetzen. Gobernu bakoitzak, arrazoi politikoak direla medio, auzitegiaren epaiak kritikatzan baditu eta horiek betetzea saihesten badu, ispiluari begira jarri eta bere buruari galdetu beharko dio ez ote den Errusia bezala jokatzan ari. Ispilua legebiltzarrek eta justizia-auzitegiek jarri behar diote aurrean, baina baita, era berean, Arartekoak eta gizarte zibilak ere. Giza eskubideak errespetatzen dituen estatu demokratikoa izateak pribilegio eta eskumen batzuei uko egitea dakar gobernuentzat, baina ez dago beste biderik.

Gobernuek batzuetan ez dituzte gogoko auzitegiaren epaiak, eta gizarte zibila ere atsekabetu egiten da horien harira. Izan ere, auzitegia ere ez da perfektua, ez du beti asmatzen eta, noiz edo noiz, presio politikoa nabaritzen da haren erabakietan. Adibidez, Espainiako gizarte zibila oso desengainatuta geratu zen auzitegiak [Melillako hesian egindako "berehalako" itzulketak](#) giza eskubideen urraketa zirela ebatzi ez zuenean. Kasu horietan, guztiz zilegi da auzitegiaren erabakiak argudioekin kritikatzera, baina ez da kritika suntsitzailerik egin behar, ezta auzitegiarekiko axolagabekeria izan ere. Gizarte zibilak auzitegia babesteari uko egiten badio, gobernuak aske sentituko dira Errusiak egiten duen gauza bera egin eta bertatik alde egiteko. Eta hori, Errusian ikusiko denez, herritarrentzat eta gizarte zibilarentzat baino ez da izango okerragoa.

Beraz, orain inoiz baino gehiago, giza eskubideen defentsan eta sustapenean inplikaturako pertsona, erakunde eta instituzio guztiek eskatu behar dugu agintari publiko guztiek konpromiso irmoa eta zintzoa izan dezatela Giza Eskubideen Europako Hitzarmenarekin eta Auzitegiarekin. Auzitegiaren epaiak [aldaketa nabarmenak eragin dituzte Espainian](#), baina hobetu beharra dago. Horrek esan nahi du betearazteko dauden epai guztiak zorrotz bete behar direla, horietatik eratorritako lege-aldaketak egin behar direla (adibidez, torturen ikerketaren arloan), eta epaiak betearazteko prozedura eta eskumen argiak ezartzen dituen legeria bat onartu behar dela. Horrela aldatuko dugu kontua. Horrela zainduko ditugu hitzarmenaren balioak eta herritarren oinarrizko eskubideak hobekien.